

Indarra zurekin!

Gure planetak indar handi batez erakartzen gaitu. Indar horrek eragozten du gizakiak, animaliak eta objektuak zerurantz jaurtiak izatea. Goma bat bezalakoa da eta Lurraren erdigunerantz erakartzen gaitu.

Gure inguruan dagoen indar ikusezin hori grabitate da. Grabitatea unibertsoko objektu guztiek duten masan du jatorria; zenbat eta handiagoa gorputzaren masa, are eta handiagoa haren grabitate-indarra. Horrek eragiten du gorputzek elkar erakartzea. Zuk eta zure lagun batek masa duzue, elkar erakartzen duzue, baina ez zarete aski handiak eta ez duzue elkar kolpatzen. Lur planetak, aldiz, hainbesteko masa duenez, indar ikaragarri atxikitzen gaitu.

Baina grabitateak etsai handia du: distantzia. Zenbat eta urrunago egon bi gorputz, orduan eta ahulagoa da elkarri egiten dioten eragina.

Muy junior aldizkaria



1 Erantzun.

Zer eragozten du grabitateak? Non du jatorria? _____

Zein da grabitatearen etsai? Zergatik? _____

2 Aukeratu. Zergatik ez dira erortzen atmosferan objektuak abiadura berdinean?

- ☐ Batzuk pisutsuagoak direlako, eta beste batzuk, arinagoak.
- ☐ Aireak eragindako marruskadurak abiadura moteltzen dielako.
- ☐ Atmosferan, abiadura berdinean erortzen dira objektu guztiak.

3 Bilatu testuan definizio hauei dagozkien hitzak eta idatzi.

Gorputzen arteko erakarpena, duten masaren arabera: _____


Espazioko bi punturen arteko tarte: _____

Elkar ukitzen duten bi objektu labaintzeari kontra egiten dion indarra: _____

Lurra inguratzen duen aire-geruza: _____

4 Esan esaldi hauek harridura (H) ala agindua (A) adierazten duten.

- ☐ Adi, neska-mutilak!
- ☐ Isil zaitezte denok!
- ☐ Ez zaitez hain mantso joan!
- ☐ Kontuz ibili!
- ☐ Hori bai balentria egin duzuna!
- ☐ Zer zortea duzun!



5 Bete esaldietako hutsunak dagozkien aditzekin eta egoki deklinatuz.



Meteorito erraldoi batek Lurra _____ zuen antzina.

Gizakiak Lurra deusezte _____ behar du.

Asko _____ nau unibertsoarekin zerikusia duen zientziak.

Txinatarrek ikerketarako satelitea _____ dute zerurantz.

Duela miloika urte, Ilargia gure planetari _____ zitzaion.